

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

#### **22/2019 Foru Agindua, urtarrilaren 24koa, Arabako Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroan inskribatzekoa Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "Armentia mendebaldea" izeneko 16 sektoreko konpentsazio batzordea desegitea**

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2018ko abenduaren 28an sarrera data eman zitzaion idazkiaren bidez, Gasteizko Udalak helarazi zigun Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "Armentia mendebaldea" izeneko 16 sektoreko konpentsazio batzordea desegiteko gobernu batzarraren erabakia.

Bigarrena. Hirigintza eta Ingurumen Saileko foru diputatuak urriaren 13an emandako 187/2003 Foru Aginduaren bidez, Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "Armentia mendebaldea" izeneko 16 sektoreko konpentsazio batzordea Arabako Hirigintza Erakunde Laguntzaileen Erregistroan inskribatzea erabaki zen.

Hirugarrena. Gobernu batzarraren 2018ko abenduaren 21eko erabaki baten bidez, Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "Armentia mendebaldea" izeneko 16 sektoreko konpentsazio batzordea desegitea onetsi zen.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Abuztuaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretuak, hirigintza kudeatzeko arautegia onesten duenak, bere 30.1 artikuluan xedatzen duenez, Hirigintza erakunde laguntzaileak desegingo dira haiek sortzeko xedea betetzen denean, eta betiere eskatuko du hirigintza administrazio jardulearen erabakia.

Bigarrena. Fernando Ramos Alcázar Gasteizko notario jaunaren aurrean eraturako konpentsazio batzarraren estatutuen 54. artikulua, 2003ko uztailaren 17an emandako eskrituraren arabera, honako hau ezartzen du: "Desegiteko arrazoiak. Hauek izango dira batzordea desegiteko arrazoiak:

a) Estatutu hauetan adierazitako xedeak betetzea (...)

Hirugarrena. Kasu honetan, batzarra eratzekeo arrazoi izan ziren xedeak bete izanak ekarri du hura desegitea, halaxe onartu baitzuen konpentsazio batzordearen batzar orokorrak 2018ko uztailaren 23ko bilkuran, eta halaxe jasotzen du gobernu batzarraren 2018ko abenduaren 21eko erabakiak.

Laugarrena. Aplikatzekoa da Diputatuen Kontseiluaren irailaren 20ko 56/2011 Foru Dekretua, Arabako Lurralde Historikoko Hirigintza Intereseko Elkarleen Erregistroa sortzen eta arautzen duena.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenak baliatuta,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Agintzea deusezta dadila Arabako Hirigintza Intereseko Taldeen Erregistroan Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko "Armentia mendebaldea" izeneko 16 sektoreko konpentsazio batzordearen inskripzioa.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko urtarrilaren 24a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**